

## **GAZTETXEA ZABALIK!**

**Gasteiztarrok gaztetxea zabalik nahi dugu!** Urriaren hasieran udaltzaingoaren eskutik esparru autogestionatuaren itxieraren atzean osasun arrazoiak ez daudela argi dugu. Hala balitz, espazioa kudeatzen duen asanbladarekin harremanetan jarriko zela ulertzen dugu, protokoloen berri eman edo hauengatik galde egiteko. Itxiera honen atzean bultzada politikoa dago, kontrolpean ez dagoen oro debekatu eta arautzearen bultzada.

Urtaran, **Gaztetxea gasteiztar guztion etxea da**, gertatzen ari den guztiarekiko arduraz jokatzeko dugunona. Guk ere bizi izan baitugu konfinamendua eta Txagorritxuko ilarak eta heriotzak eta hiri hustua eta distantziak... Gaztetxeak, herritar askok bezala, arduraz jokatzeko du egunerokoa, ez inork arautu edo agintzen diolako, hala behar dela ulertzen duelako baizik. Eta arduraz, zabalik jarraitzea nahi dugu.

**Gaztetxea sortzaileen etxea da** eta kultura segurua aldarrikatzen dugun guztiona, kulturak, bizitzak aurrera jarraitzen baitu distantzia sozial eta guzti. **Gaztetxea herri mugimenduaren etxea da**, musuko eta guzti, **etxebizitza eskubidearen alde edota arrazakeriaren kontra bileretan antolatzen jarraitzen duten gasteiztarrena. Gaztetxea, gure hizkuntzara gerturatu nahi duten guztien etxea da**, segurtasun neurri guztiak betez euskara ikastera gerturatzeko diren guztiena. **Gaztetxea auzoarena ere bada**, 32 urte daramatza Gasteizko Alde Zaharreko bizilagunekin batera elkarbizitzan, inork ez luke imajinatuko Gasteizko Alde Zaharra Gaztetxerik gabe jada.

COVID19ak eragindako osasun larrialdi egoera honetan, lehentasuna duten jarduerak errentagarritasunaren logikaren arabera neurtu dira... eta hor ez, hor ez dago gaztetxearen eguneroko jarduna. **Muinoko etxea ez da negozio bat**, ezta enpresa bat ere, ez da balioaren menpe bizi, baloreetan oinarritzen da. Ulertzen dugu, honek zuen logika hankaz gora jartzen du, **badakigu zeintzuk diren zuen lehentasunak**. Ikusten ari gara non geratu diren, gizarte zerbitzuak, lehen mailako arreta, hezkuntza... zuen kudeatzeko logikan.

Baina zorionez ere diogu, gaztetxea ez dago hor. **Ez dago zuen kudeatzeko gaitasunaren menpe, badira hortik ihes egiten duten ekimenak**, badira Gorka, errealitate dira zure/gure hirian eta zilegi dira. Bada **Errekaleor izeneko auzo bat**, okupatua eta autogestionatua, bere esperientzia ezagutzera emateko eskubide osoa duena esaterako, **badago TALKA, konfinamendu baten erdian, zuek espazio gabe utzi zenuten proiektu-espazio feminista** gasteiztarra, zuen ideia patriarkal eta kapitalisten etengabeko talkan bizi dena. Badugu gasteiztarrok eztabaidarako, hausnarketarako eskubidea, legalitate kanpo dauden gaien inguruan ere. Eta legalitatea eta zilegitasunaren inguruan eztabaida genezake agian, edo legeen zilegitasunaz... **Eztabaidak eta mahai inguruak debekatzea ez da batere demokratikoa Gorka.**

**Bada, muinoaren puntan ateak zabalik izateko eskubidea duen gune autogestionatua, zentro soziala esaten diote beste herrialde batzuetan. Gurean gaztetxe bezala ezagutzen da**, gazte asanbladak kudeatzen duelako, aupa zuek!

Gasteizko gazteak, axolagabe aurkezten dizkiguzun horiek, zeuek infantilizatu nahi dituzue, gaitasunez hustu. Baina hauek dira justuki antolatu eta ekiteko espazio bat eskaintzen digutenak. **Gasteiztar guztiontzat ate bat zabalik mantentzea lortzen dute, ate bat zabalik elkartasunari, ate bat zabalik protestari, ate bat zabalik gasteiz aldarrikatzaileari, ate bat zabalik sormenari, ate bat zabalik ardura sozialari.**

Manifestu honekin bat egiten dugun guztiok, ate hori zabalik nahi dugu.

Gaztetxea zabalik!  
GAZTETXEA GUZTION ETXEA!!

**Gasteizen 2020ko Urrian  
Gasteizko Herri Mugimendua**